

BIHARKO EUSKARA, GAUR

8 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoentzako aholkuak

KIKE AMONARRIZ



Euskaraz dakizuen gurasoei:

Bizitzako adin-tarterik ederrenetako batean dituzue haurrak. Seme-alabekin gozatzeko eta jolas egiteko urteak dira. Beraientzat, bestalde, bilaketa eta aurkikuntza garaia ere bada; emozioz, jakin-minez eta galderez beteriko sasoia.

Hizkuntzaren ezagutza, erabilera-ohiturak eta hizkuntzarekiko jarrerak ere epe honetan finkatzen dira. Urte horietan euskara ongi ikasi, ingurukoekin hala egin eta euskararen bidez barre egin, emozionatu eta bizi-poza sentitzen duten haurrek, etorkizunean ere askoz aukera gehiago izango dute ezagutza-maila egokia, erabiltzeko ohitura eta hizkuntzarekiko jarrera baikorra mantentzeko.

Debagoieneko Mankomunitateak eta Debagoieneko Udalok, eskualdeko gurasoengana zuzentzea erabaki dugu, adin horiek hizkuntzaren ikasketan eta familia transmisioan duten garrantzia aintzat harturik.

Orri hauetan, aholku batzuk eta gurasoen artean sarrien sortu ohi diren galderei eskainitako erantzunak aurkituko dituzue. Espero dugu baliagarriak izango zaizkizuela. Nolanahi ere, inolako zalantzarik edo iradokizunik izango bazenute, jakin ezazue zuen eskura gaituzuela zuen Udaleko Euskara Zerbitzuan eta bertan atseginez eta gogo onez hartuko zaituzteguna.

1. EUSKARAZ EGIN

- Gure hizkuntza delako.
- Gurasoak seme-alaben eredia edo ejenplua zaretelako.
- Familian egitea delako euskara ikasteko bermerik onena eta modurik naturalena, errazena eta eragingarriena.
- Familiako erabilera delako euskara aberatsa ziurtatzeko oinarria.



EZ AL DA HOBEA ETXEAN BI HIZKUNTZETAN EGITEA BIAK IKAS DITZATEN?

- Euskara ez dago gazteleraren maila berean; askoz ere egoera ahulagoan dago. Euskaraz dakien gurasoetako bat haurrari erdaraz zuzentzen bazaio, euskararekiko motibazioa indargabetzeko arriskua dago.
- Bestalde, eta arrazoi berberengatik, etxeko hizkuntza euskara den kasuetan, haurrek euskaraz egiteko askoz ere erraztasun eta ohitura handiagoa izan ohi dute, etxean bi hizkuntzak erabiltzen diren kasuetan baino.
- Gure egoera soziolinguistikoan, bestalde, zaila da gaztarora gaztelera ongi jakin gabe iristea. Arazo hori aurreikusten den kasuetan, nolana ere, hizkuntza horrekiko gutxieneko harremana segurtatu beharko da: irakurketak, hedabideak, jardueraren bat...



2. EUSKARAZ KONPLEXURIK GABE EGIN

- Dakizuen euskara erabili, inolako konplexurik gabe. Eta dakizuen euskara, bere aberastasun osoan transmititu seme-alabei. Euskara etxean ikasi dutenak dira, gero ere, euskara ondoen jakin eta gehien darabiltenak.



ZER EUSKARA MOTA ERABILI BEHAR DUGU HAURRAREKIN?

- Norberak ondoen dakiena, eta egoera bakoitzerako egokiena dena erabili behar du. Etxe barruko harremanetan, zuek erabili ohi duzuen euskara mota erabili; haurrari etxeko lanetan laguntzerakoan, berriz, hizkera batuagoa egiten ahalegindu.



NIRE EUSKARA MUGATUA DA. ELKARRIZKETA ARRUNTETAN EZ DUT ARAZO HANDIRIK, BAINA GAUZA BATZUK ERDARAZ ESAN BEHAR DIZKIOT.

- Egoera hau, dirudiena baino normalagoa da. Euskaldun gehienok ditugu hizkuntza gabeziak.
- Euskaraz adierazi nahi dena esateko gaitasunik ez baduzue, normala da erdaraz egitea. Garrantzitsua da, ordea, haurrari muga horien berri eman eta gurasoek arazoak zergatik dituzuen azaltzea, hizkuntzarekiko motibazioa landuz.



NOIZ, NOLA ETA ZER ZUZENDU BEHAR ZAIO HAURRARI ETXEAN?

- Hizkuntza arauak (zer dagoen ondo eta zer ez) familiaren eta hezkuntzaren bidez ikasten dira. Haurrak etxeko euskara aberatsa jasotzearekin batera, erabilera arauak ere jaso behar ditu etxean, gauzak, noiz, nola eta non esan behar dituen jakiteko. Hori bai, ahalik eta modurik jolastienean, ikuspegi zigortzaileak baztertuz.

3. ERDARAZ EGITEKO OHITURAK ALDATU

- Biok euskaldunak zaretenean, bikoteko hizkuntza euskara izatea litzateke normalena. Hala ez bada, saia zaitezte ohitura aldatzen. Haurrak antzeman eta eskertuko du.
- Familia osoak euskaraz egin dezan ahalegindu. Guraso eta haurren arteko harremanak ez ezik, anaia-arreben artekoak ere lehentasunez zaindu eta ahal duzuen neurrian, aitona-amona, lehengusu, izeba-osaba eta abarren artekoak ere euskaraz izan daitezzen saiatu.



GU ERDARAZ EZAGUTU GINEN ETA HARREMANA ERDARAZ FINKATUA DUGU, ZER EGIN?

- Erdaraz garatu den harreman bat euskalduntzea ez da samurra. Baina hizkuntza ohiturak ere alda daitezke. Jauzi hori emateko, lehenik eta behin, bikotean gaiari buruz hitz egin behar duzue eta aldaketa noiz, zein harreman esparrutan (erabatekoa oso zaila egiten bazaizue, mailakatu) eta nola egingo den adostu. Lehen-tasun osoa eskaini haurrarekin zaudeten egoerei.



4. EUSKARA ESKAINI ETA ESKATU

- Haurrak zaintzeko beste pertsonaren baten laguntza behar baduzue, ahalegindu euskaraz jakin eta egin dezan.
- Eskolaz kanpoko ekintzatan ere euskara erabil dezaten ahalegindu: kirola, musika, dantza ... Batez ere, guraso euskaldunen erantzukizuna da zerbitzu horiek euskaraz eskain daitezen eskatzea.
- Haurrei begira antolaturiko euskarazko ekintzetara eraman eta parte hartu.
- Euskarazko produktu eta zerbitzuen erabilera bermatu: jolasak, CD eta DVDak, internet, musika, telebista, liburuak...
- Irakurketarako ohitura sistematizatu.

5. IKASI BERAREKIN BATERA

- Adin hauetan, haurrari lagundu egin beharko diozu etxeko lanetan.
- Euskaraz alfabetatuta ez bazaude oso onuragarria izango zaizu ikastaroren bat burutzea.
- Nolanahi ere, haurrari eman beharreko laguntzaz balia zaitezke, zure euskara-maila hobetzeko:
 - Arretaz irakurriz.
 - Ulertzen ez dituzun hitzak berari galdetuz edo hiztegian begiratzuz.
 - Zalantzak argituz eta zure euskara osatuz.

- ZURE BIKOTEAK EUSKARAZ EZ BADAKI -

- Esandakoaz gain, ohar hauek gehituko ditugu:

-Zuk euskaraz egin:

- Ezinbestekoa da haurrari zuk beti euskaraz egitea.

-Berak motibatu:

- Bideak jarri haurrak euskaraz egiteko ohitura har dezan, eta babestu eta indartu haren ahalegina.
- Bikoteak erdaraz egingo badio ere, euskararekiko interesa agertu behar du eta haurraren ikasketa prozesua gertutik jarraitu, tarteka, euskaraz eginez: abestiak, esaldi laburrak, irakurketa errazak.



1. EZ EGIN EUSKARAZ UMEAREKIN BAKARRIK

- “Zer ikusi, hura ikasi” dio esaerak. Euskaldunak izanda, zuek ez baduzue egiten eta haurrak euskara umeentzat bakarrik dela ikusten badu, hain ume ez denean ere jokaera hori ontzat eman dezake eta askoz ere errazago joko du erdarara.

2. EZ EGOTZI ERANTZUKIZUN GUZTIA ESKOLARI

- Eskola ezinbestekoa da, baina ez da nahikoa. “Lasai, eskolan ikasiko du” entzuten dugu sarri. Euskarak bizi duen egoeran ordea, haurrak euskara jasotzeko eta erabiltzeko ardura ezin zaio eskolari bakarrik utzi. Etxean indartu eta lagundu egin behar da eskolan egiten den ahalegina.

